

HAURRENTZAKO KARTEL LEHIAKETARAKO OINARRIAK. AMURRIOKO JAIK 2018

1. Lehiaketa honen helburua 2018ko Amurrioko jaietako haurrentzako kartel ofizialaren hautaketa da. 2004 urtetik aurrera jaietakoek hartu ahal izango dute parte.
2. Lanaren luze-zabala 29,7 zm. X 42,0 zm.takoa (DIN A3) izan beharko da, bertikal tankeran.
3. Lanak *“Amurrioko Jaiak 2018”* ez ezik *“Andra Mari eta Done Errokeren Ohorez”* ere idatzirik izan beharko du azken esaldi hori elebidunetan, era berean, euskarazko testua eta Amurrioko armari berria nabareraiz edo armaria non kokatu azalduz.
4. Saria eskola materialean erabili beharko den 60 eurokoa izango da, eta 30 euroko bi akzesit ezartzen dira. Aipatutako hiru sariak Amurrioko antzokian erabiltzeko zinebono bana izango dute.
5. Parte hartzaile bakoitzak gehienez lan bat aurkeztu ahal izango du, originala eta teknika libre erabiliz. Aurreko lehiaketan aurkeztutako lanek ezin izango dute parte hartu.
6. Lanak aurkezteko epea: 2018ko apirilaren 2tik 20ra bitartean, Amurrioko Kultur Etxean, Landako Kalea 8, 01470.
7. Kartelak inolako datu pertsonalik gabe aurkezteko dira, eta kartelaren atzekaldean goiburua baino ez da jarriko. Lanaren goiburu berak azaldu beharko du beste gutun-azal baten kanpoaldean. Bigarren gutun-azal honetan lehiakidearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea sartu beharko dira.
8. Helduen kartel lehiaketarako epaimahia berdina izango da.
9. Sarituak izan ez diren lanak jasotzeko hogeitamar egun epea gaindituta, Amurrioko udalaren esku geratuko dira inolako erreklamazio eskubiderik gabe.
10. Sari banaketa 2018ko maiatzaren 11n izango da, 20:00etan, *“Bañueta”* udal kiroldegia atondoan. Egun horretan bertan inauguratuko da ekainaren 2ra arte zabalik izango den erakusketa.
11. Sariztatutako kartela Udalaren jabetzapean geratuko da, eta beroni komeni dakion era eta egunean erreproduzitu da.
- 12.- Dirulaguntzen 28/2003 Lege orokorraren 18. Atalean ezarritakoaren bat etorriz, sarituen zerrenda web orrian argitaratuko da.
- 13.-Epaimahaiaren erabakia Amurrioko Udalaren web orriaren bitartez jakinaraziko da eta saridunei idazki baten bitartez.